



MARTXOAREN 8a

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Martxoaren 8an, Emakumeon Egunean, orain arte lortutakoa ospatzeko egunetik haratago, honaino iristeko borroka egin duen Mugimendu Feminista eta norbanakoen lana aitortzeko eta aurrera begirako erronkak mahai gaineratzeko eguna da. Ezinbestekoa da eskubideen aldeko borrokan, mugimenduaren antolakuntzak eta interpelazioetatik, jendarte guztia inplikatzeko izan duen eraginaz mintzatzea. Zentzu honetan, instituzio honi dagokion ardura hartzetik aurkezten dugu adierazpen hau.

Esan dugu dagoeneko, pandemiak agerian utzi duela feminismoa aspaldi aldarrikatzen ari zena: bizitza zaugarria eta dependientea da. Bizitzari baldintza duin eta justuetan eustearen aldeko apustua egiteko unea da: horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan.

Genero-desberdintasun estrukturalen gorakada errealitate ukaezina da: emakumeek beren gain hartzen jarraitzen dute zaintzen karga gehiena, ordaindua eta ordaindu gabea; eta azken honek gainera, prekarizazio norabidea nabarmen hartu du.

Krisi egoera honi egoki erantzungo dioten erantzun integralak premiazkoak dira, esparru eta maila guztietan, globaletik tokikoraino eta alderantziz. Euskal Herrian, gure eskumen-esparru mugatuan, argi daukagu gure lurraldeetan gure bizitzaren burujabe ez garen bitartean ezin izango ditugula beharrezko aldaketa guztiak bultzatu: hala ere, badaude aukerak bide hori marrazten joateko, sisteman pitzadurak irekitzeko, eta, hain zuzen ere, tokikoa da eremu egokiena.



Horretarako, erakundeak koordinatu behar dira, eta bideak ireki herritarrek erabaki publikoetan benetan eta eraginkortasunez parte har dezaten, batez ere emakume-talde anitzek eta mugimendu feministak. Behar bezala aurre egin behar diogu daukagun erantzukizun publiko handiari, eta hori premisa feministetatik egin behar da, artikulazioa eta parte-hartzea bultzatuz, plan eta programa eraldatzaileak eginez, larrialdiei arreta emanez eta behar diren baliabide guztiak ahalbidetuz.

Horregatik guztiagatik, **Etxauriko Udalak** honako hau erabaki du:

1. "Gerezi Lilak", Etxauribarko Emakumeen Asanbladari baliabide nahikoak bermatzea, bere eginkizunak betetzeko.
2. Emakume, nerabe eta neskatoen ahalduntze indibidual eta kolektiborako ekintzak bultzatzea, "Gerezi Lilak" bezalako kolektibo feministen eskutik.
3. Gure herriko emakumeen ehun-soziala indartzea, premisa feministetatik eta ahalduntze-premisetatik.
4. Etxauribarko herritar guztiak gonbidatzea "Gerezi Lilak" elkarteak martxoaren 7 eta 8rako deitutako ekitaldietan parte hartzera.
5. Martxoaren 8an elkarretaratzea egitea Etxauriko plazan, 19:00etan, "Gerezi Lilak" taldearen eskutik, herritar guztiak parte hartzera animatuz.
6. Iruñera joateko deia egitea, Mugimendu Feministak martxoaren 8a dela-eta deitutako manifestazioan parte hartzeko.

En Etxauri, a 8 de marzo de 2022

Idoia Aritzala Etxarren
Alcaldesa de Etxauri